


Funtsezko baliabideak

Enpresa batek funtziona dezan beharrezkoa da funtsezko baliabideak ondo funtzionatzen dutela arduratzeaz.

Lehenik eta behin, baliabide fisikoak: Gure kasuan kristala, lurrina, makinak eta tresneria desberdinek produktua sortu ahal izateko. Honetaz gain, lokala eta garajeak langileek espazio bat eduki dezaten non eroso sentitzen diren enpresako erabakiak hartzeko eta estrategia desberdinak garatzeko. Bestalde, garraio bide desberdinak beharko genituzke produktua alde batetik bestera garraiatzeko eta dendetara iristeko.



Bigarrenkoz, baliabide intelektualak eta giza baliabideak. Proiektuaren oinarria koloniaren diseinua da eta honi baliabide intelektualak deritzo. Horrez gain, bakoitzaren ezaugarri eta esperientziari behatuta, zeregin desberdinak finkatu ditugu.

Mohcine imajinazio handia duen pertsona denez eta enpresa baten kudeaketan ondo lan egingo duenez enpresa burua edo ugazaba izango da. Berari esker proiektuaren oinarria lortuko baitugu, perfumearen diseinua. Gainera, enpresa kudeatzea garrantzitsua denez, erabakiak hartzerako orduan berak edukiko du azken hitza.

Beste aldetik, June Muguruza jendearekin komunikatzen abilezia handia duenez eta konbentzio lan onak egiten dituen marketing-ean lan egingo du. Abilezia hauek oso onuragarriak dira enpresarako, honi esker asko saltzea lortuko baitugu. Gainera, gure bezeroak entzunak direla sentiaraziko diegu June beraien kexa edo hobetze puntuak entzuteko eta hauen irtenbidea topatzeko prest egongo baita.

Azkenik, Anuska eta June Galarraga oso langileak eta konstanteak direnez produkzio lanean lan egingo dute. Lanpostu hau, gogorrena da, eskulana beraiek egingo dutelako. Baina beraien trebetasun eta lan egiteko gogoari esker hau ez zaie hain zaila egingo.

Azkenik, finantza baliabideak, hau da, produktua ordaintzeko moduak: Kreditu linealak eta eskudirua izatea aukeratuko ditugu. Gaur-egun, egunean zehar erabiltzen ditugun ordainketa modu praktikoek hauek direlako eta jendearentzako erosoena dela iruditzen zaigulako.

